

UDALAREN OSOKO BILKURA

2010eko otsailaren 23ko ohiko bilera

BERTARATU DIRENAK

BEHIN-BEHINEKO ALKATE-UDALBURUA

EAJ-PNV.- JESÚS BILBAO CURIEL JN.

ZINEGOTZIAK

EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA AND.

EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI AND.

EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO JN.

EAJ-PNV.- M^a CARMEN URBIETA GONZALEZ AND.

EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO JN.

EAJ-PNV.-JON PELI LAZKANO ALZAGA JN.

EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABAETA JN.

EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA AND.

PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO AND.

PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ JN.

PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA AND.

PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO JN.

PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ AND.

PSE-EE.- JUAN CARLOS MARTINEZ LLAMAZARES JN.

PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ JN.

PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ JN.

PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS JN.

Leioako udaletxean, bi mila eta hamarreko otsailaren hogeita hiruko arratsaldeko zazpi eta erdiak direla, elizate honetako Udalaren Osoko Bilkura bildu da, ohiko bilera egiteko. **Behin-behineko alkate-udalburua, JESÚS BILBAO CURIEL jauna**, izan da bileraren burua eta **behin-behineko idazkariak, JAVIER BOLINAGA LEKUE jaunak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta izatez zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen Oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Toki Erakundearen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, ohiko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

I.- ERABAKITZEKOAK

1.- LEIOAKO METROPOLI-TRENBIDEAREN GELTOKIA ETA UPV/EHUko CAMPUSA LOTZEKO TRANBIAREN GARAJEEN INSTALAZIOAK ERAIKITZEKO BEHARREZKO LURSAILAK LORTZEKO AURRETIKO KUDEAKETA EGIN AHAL IZATEKO HITZARMENA. Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko otsailaren 9ko 9 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Tokiko Gobernu Batzarrak 2009-12-29an emandako 492 zenbakiko ebazpenaren bidez, Alkatetza-udalburutzaren eta AXA Seguros Generales Sociedad Anónima de Seguros y Reaseguros enpresaren artean honako izena duen agiria formalizatu zela jakinarazi da: **LEIOAKO METROPOLI-TRENBIDEAREN GELTOKIA ETA UPV/EHUko CAMPUSA LOTZEKO TRANBIAREN GARAJEEN INSTALAZIOAK ERAIKITZEKO BEHARREZKO LURSAILAK LORTZEKO AURRETIKO KUDEAKETA EGIN AHAL IZATEKO HITZARMENA.**

Aipatutako agiriaren bidez, AXA merkataritza-etxeak bere jabetzakoa den 10.660 m²-ko lursaila okupatzeko baimena eman du, bertan, garajeen instalazioak eraiki ahal izateko.

Horren trukean, Leioako Udalak konpromisoa hartu du, plangintzaren aldaketa tramitzeko, aipatutako merkataritza-etxeak bere bulegoak ezartzeko hirugarren sektorerako 8.000 m²-ri ondare-izaera eman ahal izateko; bertan, 500 enplegu inguru egongo dira.

Hitzarmen honek eraginkortasuna izango du, baldin eta udalaren osoko bilkurak, tramitatu aurretik, onetsi egiten badu, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraiki.

Aipatutako xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, hitzarmenaren edukia 2010eko urtarrilaren 13ko BAOn argitaratu zen, eta ez zen alegaziorik aurkeztu, horretarako ezarritako 20 egun balioduneko epearen barruan.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu eta Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako irizpena eman du: hitzarmen honen onespeneraren gaineko espedientea udalaren osoko bilkurari bidaliko zaio, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeko zazpigarren xedapen osagarrian xedatutakoaren arabera.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez, erabaki du** Leioako trenbide metropolitarraren geltokia eta U.P.V./E.H.U.ko campusa lotzen dituen tranbiaren kotxetegiaren instalazioak eraikitzeke beharrezko lorrak eskuratzearen kudeaketa aurreratua ahalbidetzen duen hitzarmena, Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzuak; Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazioko Batzordearen irizpenaren termino berberetan.

2.- ONDIZ S. COOP.-EN ESKABIDEA, BAZKIDEAK HARTZEKO ESPEDIENTEA HASTEARI BURUZKOA, HAPN-REN 37. ARLOAN (ONDIZ HUTSIK) 102 BOE SUSTATZEKO. Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko otsailaren 9ko 13 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena

Ondiz S. Coop.-ek 2010-01-27an aurkeztutako idazkia (sarrera-erregistroko zk.: 637) irakurri da; horren bidez, udal-baimena eskatu da, bazkideak lortzeko prozedura hasteko, HAPNren 37. arloan (Ondiz hutsik) 102 BOE adjudikatu ahal izateko.

Hori horrela, udal-bulego teknikoak, Ondiz S. Coop.-ekin adostuta, idatzitako iragarkiaren proformaren berri eman da; bertan, prozedura, epeak, eta abar zehaztu dira. Hori guztia, bazkidearen izaera adjudikatzeko; izaera hori notarioaren aurreko lehiaketa publikoaren bidez gauzatu da.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak iritzi du Osoko Bilkuraren erabaki egokiaren bidez honako erabakiak hartzea komeni dela:

- Ondiz S. Coop.-i bazkideak lortzeko prozedura hasteko baimena ematea, HAPNren 37. arloan (Ondiz hutsik) 102 BOE adjudikatzeko.
- Leioan erroldatuta egoteko epea ezartzea, prozeduran parte hartu ahal izateko; epe hori, gutxienez, 5 urtekoa izatea, azken 10 urteotan. Zenbatzen hasteko eguna BAO n argitaratzen den eguna izatea.
- BAO n zein egunetan argitaratu den jakitean, publizitate-kanpaina egokia egitea, udal-bulego teknikoak idatzitako agiria oinarri hartuta, interesa duen herritar orok horren berri izan dezan. (Eskabideak aurkezteko epea 45 egun naturalekoa izango da, BAO n dagokion iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita).

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez erabaki du**, Ondiz S. Coop. sozietateak bazkideak hartzeko espedientea hasteko eskabidea 102 B.O.E. sustatzeko H.A.P.O.ko 37-Ondiz Alde hutsean, Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzuak; Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazioko Batzordearen irizpenaren termino berberetan.

3.- BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOAREN ESTATUTUAK ALDATZEA. Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko otsailaren 9ko 17 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Bizkaiko Garraio Partzurgoak 2009-11-04an eta 2010-01-25ean bidalitako idazkien (sarrera-erregistroko zenbakiak: 8.722 eta 565, hurrenez hurren) edukiak irakurri dira, estatutuen 18. artikulua aldatzeari buruzkoak (zuzendari-gerentearen izendapena eta etetea arautu du).

Aldaketak proposatu du izendapenaren iraunaldia 6 urtekoa barik, 3 urtekoa izatea eta Kontseilu Nagusiak, Batzorde Betearazleak hala proposatuta, edozein unetan erabaki ahal izatea izendatuaren etete librea. Aldaketa hori behar bezala tramitatu da, eta jendaurrean jarri da; horretarako, BAO n argitaratu da, 30 egunez, eta ez da inolako erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu horren gainean.

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak iritzi du osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez Bizkaiko Garraio Partzurgoak proposatutako estatutuen aldaketa berrestea bidezkoa dela.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez, erabaki du** Bizkaiko Garraio Partzurgoaren estatutuak aldatzea, Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzuak; Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazioko Batzordearen irizpenaren termino berberetan.

4.- ERABILERA PUBLIKOKO GUNEAN TERRAZAK INSTALATZEA ARAUTU DUEN ORDENANTZAREN ALDAKETARI BURUZKO UDALTZAINGOAREN ZERBITZUAREN PROPOSAMENA, ORDUTEGIA EZ BETETZEAGATIKO ZEHAPEN-PROZEDURARI DAGOKIONEZ. Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2010eko otsailaren 9ko 19 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Udaltzaingoaren Zerbitzuak 2010-02-08an aurkeztutako idazkiaren edukia irakurri da. Honakoa dio idazkiak:

“1995eko urrian, Erabilera publikoko gunean terrazak instalatzea arautu duen Ordenantza idatzi zen; ordenantza bera onetsi zenetik, 19 urte igaro dira, eta uste da, gaur egun, artikuluetako batzuk zaharkituta daudela eta ez direla praktikoak.

Horrenbestez, Udaltzaingo honek horietako bat berariaz aldatzea proposatu nahi du :

23. artikuluko bigarren paragrafoan honakoa adierazi da:

“Hogeita hamar eguneko tartean **hiru arau-hauste** eginez gero, terraza osatzen duten elementuak bertatik berehala kentzeaz gain, honako zehazpenak ezar daitezke, dagokion zehapen-espeditatea tramitatu ondoren.”

Gaur egun, ez da egokia hogeita hamar eguneko tartean hiru arau-hauste egin arte itxarotea, zehazpen-espeditatea irekitzeko. Horrenbestez, honakoa PROPOSATU NAHI DA:

Hiru arau-hausteen oharra kentzea, bai eta hogeita hamar eguneko denbora-tartea ere, baimendutako ordutegia gaintuz gero, salatu ahal izateko eta lehenengo arau-haustea egin eta berehala espeditatea hasi ahal izateko.”

Hirigintza eta Etxebizitza, Obra eta Zerbitzu, Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazio Batzordeak honako jarduerak egitea komeni dela iritzi du:

- Udaltzaingoaren Zerbitzuak egindako proposamenaren edukia erabat berrestea.
- Hasieran onestea, osoko bilkuraren erabaki egokiaren bidez, Erabilera publikoko gunean terrazak instalatzea arautu duen Ordenantzaren 23. artikulua aldatzea, honako hauen arabera:

Egungo idazkuntza:

“23. artikulua.- Ordutegia ez betetzea.

Indarrean dagoen ordenantza honen 17. artikuluan ezarritako ordutegia ez betetzeak berehala eragingo du erabilera publikoko eremua okupatzen duten elementu guztiak bertatik kentzea; izan ere, ez da uste lizentzia indarrean dagoenik, gai horren gaineko baldintza ez dela bete kontuan hartuta.

Hogeita hamar eguneko tartean hiru arau-hauste eginez gero, terraza osatzen duten elementuak bertatik berehala kentzeaz gain, honako zehapenak ezar daitezke, dagokion zehapen-espeditatea tramitatu ondoren:

- a) Ekonomikoa, indarrean dagoen Tokiko Araubidearen Legean ezarritako gehienezko muga kontuan hartuta.
- b) Establezimenduari gaitasuna gabetzea, ordenantza honen bidez araututako baimena etorkizunean lortu ahal izateko, gehienez bi urtez, gertakarien larritasunaren arabera; hau aurrekoari gehitu ahalko zaio”

Proposatutako idazkuntza

“23. artikulua.- Ordutegia ez betetzea.

Indarrean dagoen ordenantza honen 17. artikuluan ezarritako ordutegia ez betetzeak berehala eragingo du erabilera publikoko eremua okupatzen duten elementu guztiak bertatik kentzea; izan ere, ez da uste lizentzia indarrean dagoenik, gai horren gaineko baldintza ez dela bete kontuan hartuta.

Terraza osatzen duten elementuak bertatik berehala kendu eta, gainera, honako zehapenak ezarri ahalko dira, dagokion zehapen-espeditentea tramitatu ondoren:

- a) Ekonomikoa, indarrean dagoen Tokiko Araubidearen Legean ezarritako gehienezko muga kontuan hartuta.
- b) Establezimenduari gaitasuna gabetzea, ordenantza honen bidez araututako baimena etorkizunean lortu ahal izateko, gehienez bi urtez, gertakarien larritasunaren arabera; hau aurrekoari gehitu ahalko zaio”.

-Toki-araubideen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49 eta 79. artikuluetan adierazitakoari jarraiki, espeditentea jendaurrean jarri eta interesdunei entzunaldia emango zaie, 30 egun baliodunez, argitaratu beharreko iragarkia BAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

-Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren, ordenantza behin betiko onestea eta testua BAOn argitaratzea, berau betearazteko.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez, erabaki du** Udaltzaingoko zerbitzuaren proposamena erabilera publikoko espazioan terrazen instalazioa araupetzen duen ordenantza aldatzeari buruz ordutegia ez betetzeagatiko zehapen-prozedurari dagokionez, Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzuak; Mugikortasun eta Ingurumeneko Informazioko Batzordearen irizpenaren termino berberetan.

5.- IMMIGRAZIOAREN TOKIKO PLANA AURKEZTEA: Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordearen 2010eko otsailaren 10eko 9 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Gizarte Zerbitzuen Sailak Immigrazioaren Tokiko Plana aurkeztu du. 2009. urtean garatu da, eta udal-teknikariak eta udalarekin zerikusia duten gizarte-eragileek parte hartu dute bertako eztabaida-arloetan.

Plan honen ale bana eman zaie alderdi politikoei.

Era berean, Plana garatu duen EDE enpresako Jaime García jaunak azalpena eman du, eta horren ildo orokorrak laburtu ditu.

Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Batzordeak egoki iritzi dio gai hau udalaren osoko bilkuran eztabaidatzeari.

EZTABAIDA:

PSE-EEko J. Alfonso López Arevalillo jaunak esandakoaren laburpena:

Uste oso, egokitasun eta beharragatik Talde Sozialistak aldeko botoa emango du.

Hala ere, zeharkako aplikazioa duen plana denez, gaur egun behintzat burutzeko beharrezko den zehaztasunik ez duelako inpresioa helarazi nahi genuke, hau da, ez da zehazten sail bakoitzeko zein langilek zehazki burutu behar duten bere erantzukizun eta administrazioko eginkizunetan. Horregatik, espero dugu aurki plana funtzionarazten duen organigrama hori eman ahal izatea.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Guk ere aldeko botoa emango dugu beharrezko plana delako, halere, nolabaiteko atzerapenez iristen da, izan ere, duela hamar urtetik Leioak etorkinen fluxu handia du eta orain da 2010/2012 Immigrazioko Tokiko Plan batekin hasten denean. Finean, aurrerago planteatu ahal izan eta badaude udalerrri batzuk Tokiko Plana duela urte askotatik duten eta berau garatzen ari direnak.

Bestaldetik, aipatzen da teknikariak beharrezkoak izango direla Plana garatzeko eta gogorarazi nahi izan du 2009. eta 2010. urteetarako aurrekontuei aurkeztutako zuzenketetan emigrazioko programak laguntzeko partidak planteatu genituela, planteamendu honetan gure aurrerapena egiaztatzen duena.

Konfiantza dugu aurreikusten diren neurriak laster ezarriko direla eta Hezkuntza arloan bezala gertatuko ez dela, izan ere, Leioa hezkuntzari dagokionez bereziki eragindako udalerrria izanik, oraindik hezkuntzako arlo espezifikorik ez dago eta urteak beharrezko izan dira nolabaiteko espezifikotasuna eduki ahal izateko.

Azken batean nahi dugu gobernu-taldeak onartu beharreko planak barne hartzen duena bere egin eta azkar ezartzea.

EB-Berdeak taldeko Isabel García García andreak esandakoaren laburpena:

Talde Sozialistaren eta Alderdi Popularreko Taldearen laguntza eskertzen dugu baina esan behar dut gai hau 2008. urtean hasi dela. Orduan diagnostikoa egin zen. Eta, bestaldetik, emigrazioari buruzko ekintza asko garatzen ari dira baterako planik eduki gabe. Hori dela kausa, plan hau oso ondo etorriko da gai honi dagokion guztia garatzeko eta teknikarien laguntzaren ostean. Eta ez dugu ahaztu behar emigrazioaz arduratzen den Gizarte Langilea dagoela.

Halaber, esan ere egin behar dut aurrekontuan emigraziorako ekintza espezifikoak daudela, hala nola "Leioa ezagutzuz", "Leioa harreragile" eta "Emakumearen azentuak" programetatik datozenak, guztiak etorkinei bakarrik zuzenduta. Halere, gure ideia ez da emigrazioaren ghetto bat egitea eta, horrela, hezkuntza arloan, Herrigune programak herritar guztiak bereizketarik gabe barne hartzen ditu, etorkinei zuzendutako unean-unekeo ekintzak egon ahal diren arren.

Nik uste dut oraingo panorama ona dela eta Alderdi Sozialistak aipatu duen dinamizazioa ahalbidetu behar duen partida bat dagoela eta, bestetik, hainbat udal zerbitzutako langileak prestakuntzako ikastaroetara joaten ari dira eta ikastaro hauek programa betetzea erraztu behar dute.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Nik uste dut Isabel García García andreak oso ondo erantzun duela gobernu-taldearen izenean eta kritikak onartu behar direla.

Dirudien ez inoiz ez da iristen behararen aurretik baina kasu honetan azkenean plan bat dugu eta denok honekin ados zaudetenez zuen laguntza eskertzen dugu eta berriro esan nahi dugu beste arlo batzuetan ekintzak ere egiten ari direla, Hezkuntzan gertatzen den bezala.

Azkenik, berriro gobernu-taldearen izenean zuen aldeko botoa eskertu nahi dut.

Jarraian, gaia bozkatzeari ekin diote eta emaitza hurrengo hau izan da.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez, erabaki du** Immigrazioko Tokiko Plana onartzea, Gizarte Ekintza, Osasun, Kontsumo, Berdintasun eta Garapenerako Lankidetzako Informazio batzordearen irizpenaren termino berberetan.

6.- 2010EKO MARTXOAREN 8A. EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO ERAKUNDEEN ADIERAZPENA: Barne Araubideko Informazio Batzordearen 2010eko otsailaren 16ko 18 zenbakidun irizpenaren berri eman zaio udalaren osoko bilkurari, berrets dezan. Hona hemen irizpenak dioena:

Batzordeburuak jakinarazi du EUDELeK erakundeen adierazpenaren gaineko proposamena egin duela, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta; adierazi du Batzorde batek irizpena eman behar duela, osoko bilkurari aurkeztu aurretik. Bestalde, denbora-kontuak direla eta, Batzorde honetan tratatzea proposatu da, horrela, osoko bilkuraren martxoko bileraren gai-zerrendan sartu ahal izateko.

Honakoa da bidalitako testua:

“2010EKO MARTXOAREN 8KO ADIERAZPEN INSTITUZIONALA EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Gaur egungo testuinguru sozial eta politikoan, gero eta ahots gehiagok aldarrikatzen dute gazteei protagonismo handiagoa eman behar zaiela politika publikoen eraikuntzan, agente aktibo eta onuradun gisa. Etorkizunerantz aurrera egitea, etorkizuneko giltzarri direnen eskutik. Etorkizun horretan emakumeen protagonismoa ere bultzatu nahi da herritartasunaren gauzapenean; horren haritik, Instituzioak, eta horien artean Udalak, dagoeneko zenbait urte daramatzagu lanean herritarren, batez ere emakumeen, berdintasun eskariei erantzun nahian, eta, ahalegin ez gutxirekin, emaitza nabarmenak lortu ditugu zentzu horretan.

Emakume gazteen kasuan, zeintzuek etorkizun hurbilean oinarrizko protagonista izateko erronka bikoitza baitute, beraien aurrendariek egindako lana aurrerapen eta bultzada handia da egiteko horretan. Dena dela, errealitate berri bati egin behar diote aurre; izan ere, desberdintasunaren adierazpenak, sarritan, zorrotzagoak dira, eta itxuraz berdintasunean oinarritutako errealitatea bizi dute.

Nerabezaroan egindako ikerketek¹ jokabide sexistak erakusten dituzte, bai eta nerabeen artean berdintasun urriko ohiko rolak daudela ere; era berean, eraso matxistek gora egin dutela edo horiek horrela identifikatzeko zailtasunak daudela ere erakusten dute. Hain zuzen ere, hori egiaztatu da azaroaren 25a Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Nazioarteko Eguna dela-eta Euskadiko zenbait herritan egindako ikerketan. Ikerketan, gazteen partaidetza eta protagonismoa izan da ardatz nagusia.

Hori guztia dela eta, 2010eko martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean,

JAKINIK Udalek daukagun erronka gazteen artean desberdintasuna eragiten duten erak identifikatu eta horien aurka egitea ahalbidetuko duten komunikazio-bideak ezartzea dela, bai eta euren esku baliabideak uztea eta jabekuntza ahalbidetzea ere,

¹ EMAKUNDE, Emakumearen Euskal Erakundea. *EAEko nerabeak. Hurbilketa ahalduztetik abiatuta*. Vitoria-Gasteiz. 2009

ADIERAZTEN DUGU emakume eta gizonen eskubideak oso-osorik eta berdin-berdin bermatu behar direla, eta bizitzan hain garrantzitsua den garai hori landu behar dela, gizon eta emakumeen arteko jarrera positibo eta berdintasunezkoak finkatzeko, betiere, emakumeek berdintasunean oinarrituta gauza dezaten beraien herritartasuna.

Eta, horretarako, orain inoiz baino gehiago, **KONPROMISOA HARTZEN DUGU** berdintasunaren aldeko eta indarkeriaren aurkako tokiko politikak sendotzeko, bereziki neska gazte eta nerabeei begira, euren partaidetza aktiboa sustatuz helburu hauen lorpenerako.

DECLARACION INSTITUCIONAL 8 DE MARZO DE 2010 **DIA INTERNACIONAL DE LAS MUJERES**

En un momento en el que la distancia entre ciudadanía y representantes públicos es cada vez mayor, aumentan las voces que claman por dar a la gente joven un protagonismo mayor en la construcción de políticas públicas (como agentes y beneficiarios). Avanzar hacia el futuro de la mano de quienes constituyen la pieza clave del mismo. Un futuro en el que también se pretende impulsar el protagonismo de las mujeres en el ejercicio de la ciudadanía, para lo que Instituciones, y entre ellas, los Ayuntamientos, llevamos ya algunos años tratando de dar respuesta a las demandas de igualdad de la ciudadanía, sobre todo de las mujeres, y, con no poco esfuerzo, obteniendo logros destacables en este sentido.

En el caso de las mujeres jóvenes, que asumen ese doble reto de constituirse en protagonistas clave en un próximo futuro, el trabajo hecho por sus antecesoras ofrece un gran avance e impulso para ello. Sin embargo, afrontan una nueva realidad donde las manifestaciones de la desigualdad a menudo se muestran más sutiles, viviendo una realidad de aparente igualdad.

Los estudios llevados a cabo en la adolescencia² revelan comportamientos sexistas y la reproducción de roles tradicionales poco igualitarios entre adolescentes, además de un aumento en las agresiones machistas o dificultades para identificarlas como tales. Así se ha constatado también en el seno de la investigación llevada a cabo en distintos municipios vascos con motivo del 25 de noviembre, Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres, donde la participación y el protagonismo de las jóvenes ha sido el eje central de la misma.

Por todo ello, en este 8 de marzo de 2010, Día Internacional de las Mujeres,

CONSCIENTES, de que el reto al que nos enfrentamos los Ayuntamientos es establecer canales de comunicación que permitan identificar y actuar contra las formas en que se materializa la desigualdad en las jóvenes, dotarlas de recursos y favorecer su empoderamiento,

DECLARAMOS que es necesario garantizar el pleno ejercicio de los derechos de las mujeres y de los hombres de forma igualitaria y trabajar en esa etapa tan crucial en la vida para asentar conductas positivas e igualitarias entre hombres y mujeres, que permitan a éstas ejercer su ciudadanía en pie de equidad.

Y para ello, **NOS COMPROMETEMOS**, ahora más que nunca, a fortalecer las políticas locales a favor de la igualdad y contra la violencia, en especial hacia las jóvenes y

² EMAKUNDE, Instituto Vasco de la Mujer. Los y las adolescentes vascos. Una aproximación desde el Empoderamiento. Vitoria-Gasteiz. 2009

adolescentes, buscar los canales que permitan facilitar la participación activa de éstas y crear y adecuar recursos específicos para ellas que permitan avanzar hacia la igualdad.”

Barne Araubideko Informazio Batzordeak aurreko proposamen hori martxoko osoko bilkuraren gai-zerrendan sartzearen aldeko irizpena eman du.

OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak, **aho batez**, erabaki du Emakumeen Nazioarteko Egunaren 2010. urteko martxoaren 8ko adierazpen instituzionala onartzea, Barne Araubideko Informazioko Batzordearen irizpenaren termino berberetan.

II.- UDALAREN OSOKO BILKURAK UDAL GOBERNUAREN KUDEAKETARI EGITEN DION KONTROLA ETA JARRAIPENA

7.- ALKATETZA-UDALBURUTZAREN DEKRETUAK ETA TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN AKTAK, 2010.01.21etik 2010.02.17ra. Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautu zituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 46.2.e) artikuluan, apirilaren 21eko 11/1999 Legeak emandako idazkuntzan, eta azaroaren 28ko 2586/1986 Errege Dekretuak onetsi zuen Toki Erakundeen Antolaketaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera, bilkurako espedientean agertzen dira, gero dagokien lekuan artxibatzeke kalterik gabe, epigrafean aipatutako epealdian Alkatetzak emandako dekretuen kopia azter ditzaten.

EZTABAIDA:

PSE-EEko Nekane Jiménez Fernandez andreak esandakoaren laburpena:

89/10 dekretuari dagokionez, Lan eta Gizarte Segurantzako Probintziako Ikuskapenak egindako eskaerari buruzkoa, zeinaren bidez Udalarari eskatzen baitzaio Udalaren lanpostu jakin batzuen kontratu-egoera erregulatzeke, jakin nahi dugu jarraitu diren izapideak, dagoen egoera zein den eta hartu den edo hartu behar den ebazpena.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Momentu honetan ez dakit datua zein den, baina Barne Araubideko Batzordeari igorriko diogu eta bertan azalduko dute datua zein den, baina Barne Araubideko Batzordera igorriko dugu eta bertan azalduko dute.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Bulego Teknikoari 56/10 dekretuari dagokionez. Berau Ogasun eta Herri Administrazioi sailburuak emandako agindu baten aurka jarritako Administrazioarekiko Auzietako Errekurtsoari buruzkoa da. Aipatutako agindua, berriz, hiria indarberitzeko jarduketa integraletarako ordaindu gabeko diru-laguntzaren pertzepzioaren galera bati dagokio, baita hasiera batean ordaindutako laguntzaren zati bat, 809.189,68 euro, itzultzeke beharri ere. Horri dagokionez, gai honen egoera zein den jakin nahi dugu eta osoko bilkuran edo batzordean azaltzeke.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Uste dut Izarturen gaia dela, orain momentu honetan zehazki ez dakidan arren. Batzordean ikusiko da Lamiakon egin beharreko obra jakin batzuetarako dirua zegoelako eta batzuk burutzea ezinezkoa gertatu da. Edozelan ere, erantzun hau off the record izango litzateke eta gaia hurrengo batzorde batean azalduko da.

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak esandakoaren laburpena:

Galdera hau ere Bulego Teknikoaren dekretu bati dagokio (89/10 zk.duna). Honek Dow Chemical enpresari bere jarduera utzi duen lantegiaren eraikinak eta plantak eraisteko emandako lizentziaz hitz egiten du. Galdera da eraistearekin batera lurzoruen kutsadura kentzeko azterlanaren bat ere dagoen, lantegia gai kimikoena baitzen.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Hemen arazo teknikoa dago baina eraikina eraitsi behar da eta egin behar dena da udalerriko espazio honen etorkizunari buruz pentsatzea, hau da, bere xedea erabaki behar da bertan baimenduko diren erabilerei dagokienez eta, jakina, kutsadura kentzeko eta ingurumeneko inpaktuaren azterlana egin beharko da. Edozelan ere, Batzordean gaia aztertuko da, baina eraikina eraistea beharrezkoa da.

Udalaren osoko bilkurak Alkatetza-Udalburutzaren dekretuen eta Tokiko Gobernu Batzarraren akten (espedientean agertzen direnak) berri izan du.

8.- PRESAKO MOZIOAK:

Atal honetan ez da presako moziorik aurkeztu.

9.- ESKAERAK ETA GALDERAK.

LEHENENGO GALDERA:

PSE-EEko Nekane Jiménez Fernandez andreak esandakoaren laburpena:

Nire galdera da ea batzorde batzuk zergatik ez diren erregulartasunez deitzen, batzuetan hilabeteko bilkura bat ere ez delako egoten.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Informazioko Batzordeen eginkizuna, legegintzaldiaren hasieran azaldu bezala, Osoko Bilkurari egotzitako gaiak aztertzea da, hori dela kausa, deialdiak behar horri erantzun beharko dio eta ez dago nahitaezko periodikotasunik.

Hori alde batera utzita, zinegotziren batek gairen bat sakontasun handiagoz ezagutu nahi izanez gero, gobernu-taldeak jakinarazi du honen edozein kideri deitzea dagoela eta Batzorde Berezia deitu ahal izango dela beharrezkoa izanez gero si.

Batzorde bakoitzaren berezitasunak zehazki ezagutzeko, bere presidenteari kontsulta egin beharko litzaioke. Nire dagokidan arloan, berriz, planteatu dut Batzordearen bilkurak periodikotasun bati erantzun behar izatea, ilargiaren faseek egin bezalaxe. Ulertzen dut gai asko badaude batzorde bakarrean pilotzea saihestea komenigarria dela. Ondorioz, bilkurak gorabeheren arabera deituko dira. Edozelan ere, batzorde bakoitzaren zehetasunak ezagutzeko zehaztu behar duzue eta erantzungo dugu.

PSE-EEko Nekane Jiménez Fernandez andreak esandakoaren laburpena:

Neurri batean zurekin ados nago osoko bilkuraren gaiak bai aztertu behar baitira, baina uste dut udalerrian eragiten duten gaien berri eman beharko ligukete dekretuen bidez jakin beharrik gabe.

EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunak esandakoaren laburpena:

Berritot diot informazioko batzordeen eginkizuna dela osoko bilkuraren gainen gaineko irizpena ematea, halere, ados nago erantsitako edozein informazio ona izatearekin. Hori bai, arlo jakin batean batzorde bat eginez gehiago aurreratuko zela iritiz gero, bere

Presidenteari esaten diozue eta honek gai horren gaineko informazioa emango luke baina, azken batean, uste dut gaia ez dela periodikotasuna, gainen berri jasotzea baizik.

BIGARREN GALDERA:

PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak euskaraz esandakoaren laburpena:

Azkeneko osoko bilkuraren haritik datozen eske eta galdera dira, bereziki bilkura-gelaren kanpoaldean egondako istiluei dagokienez. Baina alkate jauna bertan ez dagoenez, eta honi azkar osatzea opa diogu, hau bertan dagoen hurrengo bilkura baterako utziko dugu.

Eta zortziak direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut jarduneko idazkaria naizen honek.

O.E.
BEHIN-BEHINEKO ALKATEA

BEHIN-BEHINEKO IDAZKARIA,